A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta balioespen-irizpideetarako agiri teknikoak, prezioa ez direnak, baina formula aplikatuz ebaluatu behar direnak) jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean (www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak) adierazten den egunean eta orduan.

h) Bestelako argibideak:

8. Iragarkien gastuak: esleipena egokitzen zaionaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 3an.– Kontratazio Zerbitzuko burua, MARÍA DEL MAR SAGARDOY BRIONES.

## VITORIA-GASTEIZ

EKONOMIA SUSTAPENA ETA ESTRATEGIA PLANGINTZA

2853

**Berrikuntzarako, patenteak eskatzeko eta markak erregistratzeko laguntza ekonomikoen udal programaren deialdia. 2011. urtea.**

2011ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak 2011n berrikuntzarako, patenteak eskatzeko eta markak erregistratzeko laguntza ekonomikoak arautzen duten oinarriak onetsi zituen. Orobat onetsi zuen laguntza horietarako deialdi publikoa egitea ALHAOn.

Hortaz, berrikuntzarako, patenteak eskatzeko eta markak erregistratzeko laguntza ekonomikoak emateko 2011ko deialdia argitara ematen da ondoren.

**Oinarriak**

1. oinarria.- Xedea eta aplikazio eremua

Gasteizko mikroenpresetan berrikuntza, lehiakortasunaren hobekuntza eta industria jabegoaren babesa sustatzera zuzendutako laguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea.

2. oinarria.- Enpresa onuradunen betebeharrak

Enpresa pribatuak izan ahalko dira programa honen baitako dirulaguntzen onuradun, edozein delarik ere beren forma juridikoa, baldin eta irabazizko jarduera bat egiten badute eta honako baldintzak betetzen badituzte:

a.- Enpresaren egoitza eta helbide fiskala Gasteizen edukitzea.

b.- Diruz lagunduko diren jarduerak Gasteizko udalerrian kokatutako zentro batean garatzea zuzenean.

c.- Mikroenpresa izateko bete beharreko baldintzak betetzea (10 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak bi milioi euroko kopurua ez gainditzea).

3. oinarria.- Diru-laguntzaren gai izan daitezkeen ekintzak

Mikroenpresek arlo hauetakoren batean egiten dituzten jarduera eta proiektuak gauzatzeko eman ahal izango dira laguntzak deialdi honen baitan:

Berrikuntza: alor hauetakoren bateko proiektuak diseinatu eta garatzeko: produktua, zerbitzua, marketina/merkatua, prozesuak, antolakuntza eta/edo pertsonak. Alor honetan aurkezten diren proiektuek gutxienez 3.000 euroko inbertsioa izan beharko dute.

Lehiakortasuna hobetzea: enpresak lehiakortasuna hobetzeko eta ahalmen teknologia handitzeko egiten dituen inbertsioak. Alor honetan aurkezten diren proiektuek gutxienez 3.000 euroko inbertsioa izan beharko dute.

Industria jabegoa: patenteak, erabilgarritasun ereduak eta industria diseinuak zein marka eta izen komertzialen erregistroa eskatzea.

Gastu hauei aurre egiteko eman ahal izango dira diru-laguntzak:

a.- Aholkularitza espezializatuko zerbitzuak kontratatzeak sortutako gastuak. Aholkulariek nahiz horiek lan egiten duten aholkularitza enpresek ezingo dute izan inolako loturarik laguntza-eska-

La apertura del sobre A (Proposición económica y documentación técnica para la valoración de los criterios de valoración, distintos del precio, que deban evaluarse mediante la aplicación de una fórmula) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto público, a la fecha y hora que se indique en el perfil del contratante del órgano de contratación (http://www.vitoria-gasteiz.org/concursos).

h) Otras informaciones:

8. Gastos de anuncios: Serán por cuenta del adjudicatario.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de mayo de 2011.– Jefa del servicio de Contratación, MARÍA DEL MAR SAGARDOY BRIONES.

## VITORIA-GASTEIZ

PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PLANIFICACIÓN ESTRATÉGICA

2853

**Convocatoria del programa municipal de ayudas económicas a la innovación, solicitud de patentes y registro de marcas. Año 2011.**

En sesión celebrada el 15 de abril de 2011, la Junta de Gobierno Local aprobó las bases que regulan la concesión de ayudas económicas a la innovación, solicitud de patentes y registro de marcas para el año 2011. Asimismo aprobó la convocatoria pública de dichas ayudas mediante su publicación en el BOTHA.

En su cumplimiento se procede a publicar la convocatoria de ayudas económicas a la innovación, solicitud de patentes y registro de marcas para el año 2011, con arreglo a las siguientes

**Bases**

Base 1 - Objeto y ámbito de aplicación

El objeto de las presentes bases es regular las condiciones que regirán la concesión de ayudas dirigidas a promover la innovación, la mejora de la competitividad y la protección de la propiedad industrial en las microempresas de Vitoria-Gasteiz.

Base 2 - Requisitos de las empresas/empresas beneficiarias

Podrán ser beneficiarias de las subvenciones contempladas en el presente programa las empresas privadas, cualquiera que sea su forma jurídica, que ejerzan una actividad lucrativa y cumplan los siguientes requisitos:

a.- Tener domicilio social y fiscal en Vitoria-Gasteiz.

b.- Desarrollar directamente las actividades subvencionables en un centro sito en el municipio de Vitoria-Gasteiz.

c.- Cumplir con los requisitos de microempresa (ocupar a menos de 10 personas y tener un volumen de negocio anual o balance general anual que no supere los 2 millones de euros).

Base 3 - Acciones subvencionables

Serán objeto de ayuda dentro del marco de la presente convocatoria la ejecución de las actividades y proyectos realizados por microempresas en alguno de los siguientes ámbitos:

Innovación: contemplará el diseño y desarrollo de proyectos en alguna de las siguientes áreas: producto, servicio, marketing/mercado, procesos, organización y o personas. Los proyectos presentados en este ámbito deberán tener una inversión mínima de 3.000 euros.

Mejora competitiva: inversiones realizadas por la empresa, encaminadas a mejorar su competitividad y capacidad tecnológica. Los proyectos presentados en este ámbito deberán tener una inversión mínima de 3.000 euros.

Propiedad industrial: solicitud de patentes, modelos de utilidad y diseños industriales, registro de marcas y nombres comerciales.

Tendrán la consideración de gastos subvencionables los siguientes conceptos:

a.- Gastos externos por la contratación de servicios de consultoría especializada. Las personas consultoras y/o las empresas de consultoría a las que pertenezcan, no podrán tener vinculación, ni

tzaileekin, ez zuzenik ez zeharkakorik, ez akzioen ez partaidetzaren alorrekorik.

b.- Hainbat aktibo finkoko elementuetan egindako inbertsioak, baldin eta aurkeztutako esku-hartze planaren arabera enpresaren berrikuntza eta/lehiakortasuna hobetzea badakarte.

c.- Patenteak, erabilgarritasun ereduak eta industria diseinuak eskatzeko zein markak eta izen komertzialen erregistratzeko eskabideak izapidetzeagatik estatuko nahiz eskualdeko patente bulegoetan ordaindutako tasak eta agentzia ofizial batek edo industria jabegoaren agente batek emandako kanpo aholkularitzaren gastuak.

d.- Proiektu edo jarduerarekin zuzenean loturiko bestelako gastu orokor osagarriak, behar bezala zurituta.

e.- Oro har, honakoak ez dira diruz lagunduko:

- Proiektuak ezartzeko orduan enpresak izan dituen langile, prestakuntza eta material gastuak.

-Aktibo finkoko inbertsio hauek: lursailak, eraikuntzak, altzariak, instalazioak eta garraio bitartekoak.

- Enpresaren ohiko funtzionamenduak dakartzan gastuak.

- Enpresaren jarduera iraunkorraren edo aldian aldikoaren barruan sartzen diren proiektuek sortutako gastuak.

2010eko urriaren 1etik 2011ko irailaren 30era bitarteko aldiari dagozkion fakturak lagundu ahalko dira diruz.

4. oinarria.- Balioespen-irizpideak

Proiektuak diru-laguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu, gehienez 100eko puntuaziotik, irizpide hauen arabera:

Proiektuaren azalpena: 35 puntu gehienez.

Proiektuaren definizioa eta garatze maila balioetsiko dira, honako hauek kontuan harturik: berrikuntzaren premia; egiten diren inbertsioek enpresaren lehiakortasuna zenbateraino hobetuko duten, faseak, aurrekontua eta abar.

Sektore eta merkatuarekiko berrikuntza/lehiakortasunaren hobekuntza: 25 puntu gehienez.

Hauxe hartuko da kontuan atal honetan: proiektuaren helburuak berriak eta berritzaileak diren, eta lehiakortasuna hobetzea dakarten berekin, enpresak diharduen merkatu edo sektorearen egoera kontuan izanik.

Enpresarekiko berrikuntza/lehiakortasunaren hobekuntza: 25 puntu gehienez.

Hauxe hartuko da kontuan atal honetan: proiektuaren helburuak berriak eta berritzaileak diren, eta enpresaren kalitatean hobekuntzarik ekarriko duen.

Egindako inbertsioa: 15 puntu gehienez.

Industria jabegoa babesteari dagokionez, nahikoa izango da eskabidea aurkeztu izana.

5. oinarria - Zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa 4. oinarrian jasotako balioespen irizpideen araberakoa izango da, eta diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 40ra artekoa izan daiteke.

Berritzeko edo lehiakortasuna hobetzeko proiektuen kasuan, gehienez, 5.000 euro eman ahalko dira enpresa onuradun bakoitzeko eta urteko. Industria jabegoa babesteari dagokionez, gehienez 2.200 euro emango da.

Gastu hauek ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat joko: interesak, gainkarguak edo administrazio zigorrak, edo jarduerei dagozkien zergak.

6. oinarria - Ordaintzeko modua

Aldi bakarrean nahiz bitan zatituta ordaindu ahal izango da laguntza, diru-laguntza jaso duen proiektua zenbateraino gauzatu den aintzat harturik. Aldez aurretik, hori egiaztatzen duen txostena egin beharko du Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Sailak.

Laguntza ordaintzeko dokumentazio osagarria aurkezteko baldintza ezartzen bada, deialdiaren 12. oinarrian xedatutakoari jarraituko zaio.

accionarial, ni de participaciones, directa o indirectamente, con las solicitantes de las ayudas.

b.- Inversiones en elementos de activo fijo, siempre que según el plan de actuación presentado sustenten la innovación y/o la mejora competitiva de la empresa.

c.- Tasas abonadas por la tramitación de solicitudes de patentes, modelos de utilidad y diseños industriales así como registro de marcas y nombres comerciales ante las oficinas nacionales u oficinas regionales de patentes y marcas y los gastos de asesoría externa desarrollados por una agencia oficial o agente de la propiedad industrial.

d.- Otros gastos generales suplementarios, directamente derivados del proyecto o actuación y debidamente justificados.

e.- Con carácter general, no se considerarán subvencionables:

- Los gastos de material, formación y de personal soportados por la empresa en la implantación de los proyectos.

- Las siguientes inversiones en activo fijo: terrenos, construcciones, mobiliario, instalaciones y elementos de transportes.

- Gastos derivados del funcionamiento normal de la empresa.

- Gastos derivados de proyectos que constituyan una actividad permanente o periódica en la empresa.

Serán subvencionables las facturas correspondientes al período comprendido entre el 1 de octubre de 2010 y el 30 de septiembre de 2011.

Base 4 - Criterios de valoración

Para que un proyecto sea subvencionable tendrá que obtener una puntuación mínima de 50 puntos sobre la máxima de 100, según los siguientes criterios:

Definición del proyecto: hasta 35 puntos

En este apartado se valorará la definición y el grado de desarrollo del proyecto, haciendo referencia a aspectos tales como la necesidad de innovación, mejora competitiva aportada a la empresa por las inversiones realizadas, fases, presupuesto, etc.

Innovación/mejora competitiva respecto sector y mercado: hasta 25 puntos

En este apartado se tendrá en cuenta que los objetivos del proyecto sean novedosos e innovadores o supongan una mejora competitiva sobre la situación del mercado o sector en el que actúe la empresa.

Innovación/mejora competitiva respecto a la empresa: hasta 25 puntos

En este apartado se tendrá en cuenta que los objetivos del proyecto sean novedosos e innovadores o supongan una mejora cualitativa sobre la situación de la empresa.

Inversión realizada: hasta 15 puntos

En el caso de la protección de la propiedad industrial, será suficiente con haber presentado solicitud.

Base 5 – Cuantía

El importe de la subvención dependerá de los criterios de valoración recogidos en la base 4, pudiendo alcanzar hasta un máximo del 40 por ciento de los gastos subvencionables.

En el caso de proyectos de innovación o mejora de la competitividad, el límite máximo será de 5.000 euros por empresa beneficiaria y año. En el caso de la protección de la propiedad industrial este límite será de 2.200 euros.

No se contemplarán como gastos subvencionables los intereses, recargos y sanciones administrativas, ni los impuestos relacionados con las actividades señaladas.

Base 6 - Forma de pago

El abono de la ayuda podrá realizarse en un solo pago o de forma fraccionada en dos pagos, en función del grado de ejecución del proyecto subvencionado previo informe técnico del Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica que así lo justifique.

Si el pago de la ayuda queda condicionado a la presentación de documentación adicional, se aplicará lo dispuesto en la base 12 de la presente convocatoria

7. oinarria - Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebehar hauek izango dituzte:

a) Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoen mende ere.

b) Diru-laguntza emateko kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

c) Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Sailaren eskura jartzea.

d) Diru-laguntza eman ondoren, norako eman den, horretara bideratzea ekonomi jarduera gutxienez bi urtez. Adierazitako epe hori igaro aurretik jarduera eten egiten bada, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio Udalari, eta emandako diru-laguntza osorik edo horren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik 2 urteko epe hori –diru-laguntza eman zen egunetik kontatuta– betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespenez, kasu hauetan ez da itzultzeko eskatuko:

Jabeak gaixotasun larria duelako edo hil egin delako ixten bada negozioa.

Establezimendua eskuz aldatzen bada, baldin eta, jabea edozein izanik ere, jarduerari gutxienez 2 urtez eusten bazaio. Epe hori bete bitartean, diru-laguntza jaso zuenaren erantzukizuna izango da behar izanez gero diru-laguntza itzultzea.

8. oinarria - Aurrekontu kreditua

2011ko udal aurrekontuetako 0816.3221.480.02 “Mikroinnova programa” partidaren kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak, gehienez ere 87.587,25 eurora arte.

Aurrekontu-zuzkidurara mugatuko dira diru-laguntzak, eta sarrera-erregistroko hurrenkerari jarraiki emango zaio lehentasuna proiektu bati edo besteri.

Nolanahi ere, enpresa eta urte bakoitzeko laguntza-dosier bakarra bideratuko da, oinarri hauetan ageri diren kontzeptuengatik.

Egotzi behar zaizkioneko aurrekontuan helburu horretarako aski kreditu egokirik egon ezean, oinarri hauen eraginkortasuna bertan behera geratuko da, laguntza berriak emateari dagokionez. Gertakizun horri publizitatea ematearren, Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkariak kreditua noiz ahitu den adieraziko duen ebazpena emango du eta ALHAOn argitaratuko da hori.

9. oinarria - Beste diru-laguntza batzuekiko bateraezintasuna

Programa honetan aurreikusitako laguntzak ezingo zaizkio helburu bererako eskuratutako beste laguntza batzuei gehitu.

10. oinarria - Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak eskuratzeko eskabideei:

- Eskaera orria eta zinpeko aitorpena (I. eranskina).
- Pertsona fisikoa bada: nortasun agiriaren fotokopia.
- Pertsona juridikoa bada: IFKren kopia, eskrituren kopia, sozietatea eratzeko akta eta ordezkatze ahalmenak (halakorik bada).
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratuak, enpresak zerga betekizunak eta betebehar laboralak egunean dituela egiaztatzen dutenak. Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, ofizioz begiratuko da eskatzailea egunean dagoen.
- Azken hilabeteko TC1 eta TC2 edo, langilerik gabeko autonomoen kasuan, azken hilabeteko autonomo ordainketaren agiria.

Base 7 - Obligaciones de la empresas beneficiarias

Las empresas beneficiarias de estas ayudas estarán obligadas a:

a) Someterse a las actuaciones de comprobación del Ayuntamiento y a las de control financiero que corresponden a la Intervención General del mismo y a las previstas en las normas del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

b) Comunicar al Ayuntamiento la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

c) Facilitar al Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica cuanta información y/o documentación complementaria se considere necesaria para la comprensión y evaluación de la solicitud de ayuda.

d) Ejercer la actividad económica objeto de ayuda durante al menos 2 años a partir de la fecha de concesión de la subvención. En caso de cese de la actividad en plazo inferior al señalado, la empresa beneficiaria deberá comunicarlo al Ayuntamiento y proceder al reintegro o devolución proporcional de la subvención concedida, en función del tiempo pendiente de transcurrir desde la fecha del cese de la actividad hasta la fecha en que se hubieren completado los 2 años, contabilizados a partir de la fecha de concesión de la subvención. Excepcionalmente, no se solicitará la devolución precitada en los siguientes supuestos:

En caso de cierre del negocio por enfermedad grave o fallecimiento del/de la titular.

En caso de traspaso del establecimiento, siempre que, independientemente del/de la titular, se cumplan los 2 años de mantenimiento de la actividad, manteniéndose la responsabilidad de la posible devolución de la subvención por parte de la persona perceptora de la misma.

Base 8 - Disponibilidad presupuestaria

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria se financiarán con cargo a la partida 0816.3221.480.02, denominada “Programa Mikroinnova”, del presupuesto municipal aprobado para el año 2011, hasta un límite máximo de 87.587,25 euros.

La concesión de las ayudas estará condicionada a la disponibilidad presupuestaria, priorizándose los proyectos según fecha de registro de entrada.

En todo caso, sólo se tramitará un expediente de ayuda por empresa y año por los conceptos recogidos en estas bases.

En el caso de que en el presupuesto al que deban imputarse no exista crédito suficiente y adecuado para dicha finalidad, se suspenderá la eficacia de las presentes bases en lo relativo a la concesión de nuevas ayudas. Al objeto de dar publicidad a dicha circunstancia, el/la concejal/a delegado/a del Área de Promoción Económica dictará resolución señalando la fecha en la que se hubiera producido el agotamiento del crédito, publicándose la misma en el BOTHA.

Base 9 - Incompatibilidad con otra ayudas y subvenciones

Las ayudas previstas en el presente programa no podrán acumularse a ninguna otra ayuda que subvencione los mismos gastos presentados al presente programa.

Base 10 - Documentación preceptiva

Las solicitudes de subvención reguladas por las presentes bases deben venir acompañadas de la siguiente documentación:

- Impreso de solicitud y declaración jurada (anexo I).
- En caso de persona física: fotocopia del DNI
- En caso de persona jurídica: copia del CIF, fotocopia de las escrituras, acta de constitución de la sociedad y poderes de representación en su caso.
- Certificados actualizados de la Hacienda Foral y de la Seguridad Social de que se encuentra al día de sus obligaciones fiscales y laborales. Se comprobará de oficio si la empresa solicitante se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.
- TC1 y TC2 del último mes o, en el caso de autónomos sin personal a su cargo, recibo de pago de autónomos del último mes

- Enpresak abian jarritako berrikuntza edo lehiakortasun hobekuntzako jarduerak jasotzen dituen proiektua. Gutxienez alderdi hauek jaso beharko dira bertan: enpresaren jardueraren eta diseinatutako jardunbide planaren azalpen-txosten laburra, diru-laguntza eskuratzeko aurkezten diren proiektu zehatzak –enpresaren berrikuntza eta estrategia helburuei erantzun diezaieketenak– jasotzen dituena. Txostenean hainbat alderdi zehaztu behar da: proiektu bakoitzaren xedea, faseak eta egin beharreko jardueren programazioa, ezarpenarekin lortu nahi diren emaitzak, kanpoko aholkularitzaren kostua, gastu orokor osagarriak, eskatzen dituen inbertsioak (behar baditu) eta aurreikusitako finantzazioa.

- Diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuei dagozkien jatorrizko fakturak eta kopiak, baita ordainketa-egiaztagiria ere.

- Asmakizunaren patentea edo erabilgarritasun eredua zein marka erregistratzeko Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoan egindako eskabidea.

11. oinarria.- Eskabideak aurkeztea

Deialdi honen I. eranskinean ageri den eredua baliatu beharko da laguntzak eskuratzeko eskabideak egiteko. Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian –Olagibel kalea, 2– aurkeztu beharko dira, agiriekin batera. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa aintzat hartuko da.

Enpresek nahiz pertsona interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta diru-zuzkidura agortzean bukatuko, edo, bestela, 2011ko irailaren 30ean.

12. oinarria.- Akatsak zuzentzea

Diru-laguntza eskabideek ez badituzte oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan galdatutako agiriak ez baldin bazaizkie gehitzen,enpresei edo interesdunei 10 eguneko epea emango zaie akats eta okerrak konpondu edo falta diren beharrezko agiriak ekar ditzaten, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluaren ildotik. Halaber ohartaraziko zaie hala egin ezean eskaera bertan behera utzitakotzat joko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, eta lege beraren 42.1 artikuluak aurreikusitako ondorioak izango dituela horrek.

13. oinarria.- Prozedura

1.- Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Hautatze eta jarraipen batzorde bat eratuko da horretarako, Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Saileko zuzendariak, Berrikuntza eta Ekonomia Sustapenerako Zerbitzuko eta Prestakuntza eta Enplegu Sustapenerako Zerbitzuko buruek osatua; batzorde hori arduratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Berrikuntza eta Ekonomia Sustapenerako Zerbitzuko teknikariek txostena egin ondoren.

2.- Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkariaren banan-banako ebazpenen bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, hautatze eta jarraipen batzordearen proposamenaren ildotik. Eskabideak jaso ahala ebatziko dira.

3.- Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpenak agortu egingo du administrazio bidea; horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen denetik kontatuta. Eskabideak ebazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsitzat jo dela ulertu behar da.

- Proyecto en el que se recojan las actividades de innovación o mejora de la competitividad puestas en marcha por la empresa. En el mismo, se deberá recoger como mínimo una memoria descriptiva breve de los datos básicos de actividad de la empresa y del plan de actuación diseñado, en la que se recoja el o los proyectos concretos presentados a subvención y que puedan dar cobertura a objetivos innovadores y estratégicos de la empresa para la mejora de su competitividad. Esta memoria ha de especificar el objeto de cada proyecto, sus fases y programación de actuaciones a realizar, resultados esperados de su implantación, coste de asesoramiento externo, gastos generales suplementarios, inversiones a que dé lugar si fuera el caso y financiación prevista.

- Facturas originales y fotocopias correspondientes a los conceptos subvencionables con justificante de pago.

- En su caso, solicitud de patente de invención o modelo de utilidad o registro de marca, ante al OEPM.

Base 11 - Presentación de solicitudes

Las solicitudes para la obtención de las ayudas seguirán el modelo que figura en el anexo I de la presente convocatoria que, junto a la documentación preceptiva, deberán ser presentadas en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la calle Olaguibel nº 2. Será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La presentación de solicitud por parte de las empresas y personas interesadas implicará la aceptación del contenido de estas bases.

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará al día siguiente de la publicación de las presentes bases en el BOTHA y finalizará con el agotamiento de los fondos destinados a este fin o, en su caso, el 30 de septiembre de 2011.

Base 12 - Subsanación de deficiencias

Si las solicitudes de subvención no reúnen los requisitos exigidos en las presentes bases, o no se acompañara a la misma la documentación exigida, de conformidad con lo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimientos Administrativo Común, se requerirá a las empresas o personas interesadas para que, en un plazo de 10 días, subsanen las faltas o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se les tendrá por desistidas de su petición, archivándose sin más trámites, con los efectos previstos en el artículo 42.1 del mismo texto legal.

Base 13 - Procedimiento

1.- Corresponde al Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica la gestión de las ayudas previstas en las presentes bases, a cuyo efecto se constituirá una comisión de selección y seguimiento integrada por el/la director/a del Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica, las jefaturas de los Servicios de Innovación y Promoción Económica y de Formación y Promoción de Empleo, que será la encargada del análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, previo informe del personal técnico del Servicio de Innovación y Promoción Económica.

2.- La concesión o denegación de las ayudas se realizará, previa propuesta de la comisión de selección y seguimiento, mediante resolución individualizada del/de la concejal/a delegado/a del Área de Promoción Económica. Las resoluciones se adoptarán de forma continuada según el orden de recepción de las solicitudes.

3.- La resolución del/de la concejal/a delegado/a del Área de Promoción Económica agotará la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo en el plazo de 2 meses, contados desde el recibo de la notificación, ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Vitoria-Gasteiz. El plazo máximo para resolver las solicitudes será de tres meses. Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud.

14. oinarria.- Diru-laguntzen berri ematea

Sei hilabetean behin, epe horretan emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da ALHAOn eta Udalaren iragarki taulan, enpresa edo pertsona onuradunak, zenbatekoak eta xedeak adierazten direlarik.

15. oinarria.- Europako Gizarte Funtsaren finantziazioa

Partez (ehuneko 50) Europako Gizarte Funtsak finantzatuta daude laguntza hauek, Euskadi 2007-2013ko programa eragilearen baitan eta “Enpresa Lokala 10. Inbertitu etorkizunean” izeneko proiektuaren barruan.

16. oinarria.- Diru-laguntzak aldatzea

Diru-laguntzak emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero, horiek emateko ebazpenak aldatzea ekar lezake horrek berekin; edonola ere, oinarri hauetan ezarritako baldintzetara moldatu beharko da aldakuntza.

17. oinarria.- Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Gasteizko Udalak emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol eta ebaluazio ekintzak burutuko ditu, Ekonomia Sustapenerako Sailaren bitartez.

18. oinarria.- Laguntzak itzultzea

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira, baita diru-laguntza ordaintzen denetik sortutako interes legalak ere, laguntzen onuradun diren pertsonek oinarri hauetan, emate ebazpenean nahiz aplikagarri suertatzen diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak urratzen badituzte; guztia ere, dena delako urraketaren ondorioz Udalak bidera litzakeen bestelako ekintzak gorabehera.

Dagozkien ondorio legaletarako, itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira.

Kudeaketa, kontrol edo ikuskatze lanetan diru-laguntza modu ezegokian eskuratu dela atzematen bada, edo oker erabiltzen ari dela, hala jasoko da dosierrean eta, horrenbestez, beharrezko diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

19. oinarria.- Itzularazteko prozedura

Diru-laguntza itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko eskumena hura eman zuen organoak izango du.

Ofizioz nahiz eskumena duen organoak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahal izango da prozedura.

Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio Udalak diru-laguntzaren enpresa onuradunari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko dio, egokitzat dituen alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez ditzan, 15 eguneko epean.

Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko.

Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehienezko epea hamabi hilabetekoa izango da.

Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik kontatuta. Borondatezko aldiko epetzat joko da epe hori.

Diru-laguntza aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, aplikagarri diren lege-araudiei jarraiki.

Diru-laguntza itzularazteko prozedura arau-hauste administratibo baten ondorioz abiarazia bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio, aplikagarri den zigortze prozedurari ekin diezaion.

Base 14 - Publicidad de las subvenciones

Con carácter semestral se publicará en el BOTHA y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento una relación de las subvenciones concedidas en dicho periodo, con indicación de las empresas o personas beneficiarias de las mismas, su importe y objeto.

Base 15 - Cofinanciación del Fondo Social Europeo

La presente convocatoria de ayudas se encuentra cofinanciada al 50 por ciento por Fondo Social Europeo en el marco del Programa Operativo País Vasco (2007-2013), denominado “Empresa Local 10. Invierte en tu futuro.

Base 16 - Modificación de las subvenciones

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las subvenciones podrá dar lugar a la modificación de las resoluciones de su concesión, debiendo en todo caso sujetarse dicha modificación a las condiciones establecidas en las presentes bases.

Base 17 - Control, evaluación, inspección

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a través de su Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica, realizará las acciones de control y evaluación que resulten necesarias en orden a garantizar la correcta aplicación de las ayudas concedidas a los fines previstos.

Base 18 - Reintegro de las ayudas

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, así como la exigencia de los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención, cuando las empresas o personas beneficiarias de las ayudas incumpliesen las condiciones establecidas en las presentes bases, en la resolución de concesión y en las demás normas que resulten de aplicación; todo ello sin perjuicio de las acciones que procedan como consecuencia del incumplimiento.

Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público a los efectos legales pertinentes.

Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, control o inspección se deduzcan indicios de la incorrecta obtención o disfrute de la subvención, se hará constar en el expediente y, en su virtud, se podrá acordar la adopción de las medidas cautelares que en cada supuesto correspondan.

Base 19 - Procedimiento de reintegro

Será competente para iniciar el expediente y, en su caso, adoptar la resolución de exigencia del reintegro, el órgano que concedió la subvención.

El procedimiento podrá iniciarse de oficio, a instancia de órgano competente o de persona interesada.

Adoptada providencia al efecto, el Ayuntamiento comunicará a la empresa beneficiaria de la subvención la iniciación del procedimiento de reintegro y las causas que lo fundamentan, dándole audiencia para que, en un plazo de 15 días, formule las alegaciones que considere oportunas y presente los documentos o justificaciones que estime pertinentes.

Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubieran formulado, por el/la concejal/a delegado/a del Área de Promoción Económica, se dictará resolución motivada, con expresión del régimen de recursos.

El plazo máximo para resolver el procedimiento de reintegro será de doce meses.

Si la resolución estimase la existencia de incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería Municipal las cantidades indebidamente percibidas en un plazo de dos meses desde la notificación. Este plazo se considerará como plazo de pago en periodo voluntario.

En caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se dará inicio al procedimiento de apremio, conforme a la normativa legal aplicable.

Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de una infracción administrativa, se pondrá en conocimiento del órgano competente para la iniciación del procedimiento sancionador aplicable.

20. oinarria.- Ordezko erregimena

Oinarri hauek aurreikusi gabekoetan, baita arau-hauste, zigor eta ordezko erantzukizunei dagokienez ere, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza (2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.) hartuko da kontuan, baita azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea ere.

21. oinarria.- Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko dira indarrean diru-laguntzak emateko deialdi eta oinarri hauek.

22. oinarria.- Isilpekotasun klausula

Jasotzen dituen datuak –bere jarduerei zabalkundea eman eta halakoak sustatzeko– datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sar litzakeela jakinarazten die eskatzaileei Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapen eta Estrategi Plangintzaren Sailak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Horren gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero –norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu–, Gasteizko Udaleko helbide honetara jo beharko dute: Olagibel kalea 2; 01001 Gasteiz, edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.

**I. eranskina: Laguntza eskabidea eta zinpeko aitorpena**

....................................................................................... jaunak/andreak –norta¬sun-agiria:.........................–,.......................................................... enpresako –IFZ:.........................–............................. den aldetik –helbidea:..................................................................; telefonoa:....................................; posta elektronikoa:..........................–, hauxe

Aitortzen du

Ezagutzen dituela eta onartzen 2011. urtean laguntza ekonomikoak emateko programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarriak.

Enpresa onuraduna izateko oinarrietan eskatzen diren betebeharrak (tamaina, kokapena, jarduera, enpresa lotura...) betetzen dituela.

Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo proze¬duratan.

Deialdi honek xede dituen gastuak finantzatzeko ez duela beste erakunde publiko zein pribatuetako laguntzarik jaso. Halaber, deialdi honen bidez diruz lagundutako gastuetarako beste erakunde publiko nahiz pribatu batetik laguntzarik jasotzen badu, sailari horien berri emateko konpromisoa hartzen du bere gain.

Laguntza eskatzen duen enpresaren banku-datuak hauexek direla:

Bankua ............. Agentzia.......... KZ .... Kontu zk. ..........................

eta

Eskatzen du

Helburu honetarako laguntza: ......................................................, ALHAOn argitaratutako oinarriekin bat etorriz.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko............................(a)ren.....(e)an.

Jasotzen dituen datuak –bere jarduerei zabalkundea eman eta halakoak sustatzeko– datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sar litzakeela jakinarazten die eskatzaileei Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Sailak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Horren gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero –norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu–, Gasteizko Udaleko Argibide Bulegora jo beharko dute, helbide honetan: Olagibel kalea 2; 01001 Vitoria-Gasteiz, edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 18an.– Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkaria, ISABEL MARTÍNEZ DÍAZ DE ZUGAZÚA.

Base 20 - Régimen supletorio

En lo no previsto en las presentes bases, así como el régimen de infracciones, sanciones y responsabilidad subsidiaria, será de aplicación la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (BOTHA número 5 de 13 de enero de 2006), la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Base 21 - Entrada en vigor

Las presentes bases y la convocatoria de ayudas entrarán en vigor el día siguiente de su publicación en el BOTHA.

Base 22 - Cláusula de confidencialidad

El Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales de las solicitudes podrán ser incorporados a los ficheros automatizados de datos de carácter personal titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la difusión y promoción de sus actividades. Pudiendo si lo desean ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la Oficina de Información Central del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en la siguiente dirección: Olaguibel, nº 2, 01001 Vitoria-Gasteiz y en todas las oficinas de Atención Ciudadana.

**Anexo I: Solicitud de ayuda y declaración jurada**

D./Dña.............................................................................................. con DNI ................................................, en su calidad de ................de la empresa ................................., con NIF.........................................., domicilio en ..........................................., teléfono de contacto ....................y correo electrónico ..........................................

Declara

Conocer y aceptar las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del programa municipal de ayudas económicas. Año 2011.

Que cumple con los requisios fijados en las bases para ser empresa beneficiaria (tamaño, ubicación, actividad, vinculación empresarial….)

No hallarse incursa en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas.

Que no ha recibido ayudas de ningún otro organismo público o privado para financiar los mismos gastos presentados a esta convocatoria de ayudas. Asimismo, se compromete a informar a este departamento de las subvenciones que pueda recibir de otros organismos públicos o privados por los mismos gastos subvencionados por esta convocatoria.

Que los datos bancarios de la empresa que solicita la subvención con los siguientes:.

Banco ......... Agencia......... DC ......... Nº cuenta ..........................

y

Solicita

Una ayuda para .........................................................., de conformidad a las bases publicadas en el BOTHA.

Y para que conste donde proceda, lo firma

En Vitoria-Gasteiz, a......de.......................................de 2011.

El Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal, informa que los datos personales de las solicitudes podrán ser incorporados a ficheros automatizados de datos de carácter personal titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la difusión y promoción de sus actividades. Quienes lo deseen podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la oficina de información central del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en la siguiente dirección: Olagibel, nº 2, 01001 Vitoria-Gasteiz, y en todas las Oficinas de Atención Ciudadana

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de abril de 2011.– La concejala delegada del Área de Promoción Económica, ISABEL MARTÍNEZ DÍAZ DE ZUGAZÚA.